

Expediente	Resolución		Implikatutako administrazioak		Kontzeptua
23/2012	R18/2017	2017/12/22	Estatuko administrazioa	Bizkaiko Foru Aldundia	Pertsona fisikoien zerga-egoitza.

**R18/2017 ebazpena
23/2012 espedientea**

Gasteizen, 2017ko abenduaren 22an,

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Gabriel Casado Ollero jauna batzordeburu eta Isaac Merino Jara jauna eta Javier Muguruza Arrese jauna batzordekide dituela, honako hau

ERABAKI DU

ZAEA Zerga Administrazioko Estatu Agentziak BFA Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrean aurkeztutako gatazkaren inguruan, J jauna zergapekoak 2007ko urtarrilaren 1etik 2012ko otsailaren 1era arte izandako zerga-egoitzari dagokionez; gatazka hori Arbitraje Batzordearen aurrean izapidetzen ari da, 23/2012 espediente-zenbakiarekin, Javier Muguruza Arrese jauna duela txostengilea.

I. AURREKARIAK

1.- Zerga Administrazioko Estatu Agentziak aurkeztu zuen gatazka hau, bere zuzendari nagusiaren idazkiaren bidez; Posta Zerbitzuaren 2012ko maiatzaren 31ko data zuen idazkiak, eta 2012ko ekainaren 1ean erregistratu zen haren sarrera Arbitraje Batzordean.

Idazki horretan, azaltzen da 2012ko martxoaren 1ean Euskal Autonomia Erkidegoko Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren Ordezkaritza Bereziaren Erakunde Harremanetarako Eskualdeko Sailaren buruak Bizkaiko Foru

Aldundiari proposamen bat bidali ziola, Itunaren 43.Bederatzi artikuluan xedatutakoaren arabera, J jaun zergapekoaren zerga-egoitza Madrilera aldatzeko eta 2007/01/01etik 2012/02/01erako eraginarekin aldatzeko. Zerga-egoitza aldatzeko proposamena BFARI jakinarazi zitzzionetik bi hilabeteko epea igaro zen horri erantzunik eman gabe; horregatik, proposatutako zerga-egoitzaren aldaketarekin ez zegoela ados ulertu zuen ZAEAk, eta, horrenbestez, Arbitraje Batzordearen erregelamenduaren 13.2 artikuluan aurreikusitako hilabeteko epearen barruan, gatazka hau jarri zuen. Geroago, 2012/05/08an, Bizkaiko Foru Aldundiaren erantzuna jaso zuen: zerga-egoitza aldatzeko proposamenarekin ez zegoela ados jakinarazi zion.

Azalpeneko idazkiak zehazten duenez, egoitza aldatzeko proposamen horrekin batera bi txosten zohoazen: ZAEAREN Bizkaiko Ordezkartzako Tributu Kudeaketako Probintziako Sailarena bat, eta ZAEAREN Madrilgo Ikuskapeneko Eskualdeko Sailarena bestea, 2011/05/30 eta 2012/02/28ko datekin. Idazkiarekin batera beste agiri batzuk ere badatoz.

2. Idazki horretan eta horrekin batera aurkeztutako agirietan honako aurrekari nagusi hauek ageri dira J jaunari buruz, laburbilduta:

1) ZAEAREN datu-basean, 1998/06/12 eta 2012/02/01 arteko aldian, Bizkaian agertzen da haren zerga-egoitza. 2012/02/01ean berak jakinarazi zuen Madrilera aldatzen zuela bere egoitza.

2) 2009 arte, hiru higiezinen titularra zen; Murtzian zeuden bi (2009/07/30ean saldu zituenak) eta bat Madrilen, 385.551,30 euroko katastro-balioarekin. Higiezin hori eta Ronda de Sobradiel kaleko 66. zenbakikoa onibar bat eta bera dira, bi sarrera-ate dituena aipatu zenbaki horietatik.

2010etik aurrera, Madrilen dagoen bizitegi-higiezin hiritar horren jabe legez ageri da soilik.

3) Hiru banku-konturen jabe da; Madrilgo sukurtsaletan irekitakoak dira bi eta Bilbon bat.

Bilboko La Caixaren sukursalean irekitako kreditu-kontuan, Bizkaian duen etxebizitza ageri da helbidetzat; Madrilgo Lloyds Bank International SAren eta Madrilgo Cajamadriden sukursaletan irekitako kontu-korronteetan, berriz, Madrilgoa da banku-entitateei adierazi zaien jakinarazpenetako helbidea.

4) Bazkide bakarra da P entitatean; eta ordezkaria da zerga-egoitza Gipuzkoan duen C SA sozietatean, eta Madrilen zerga-egoitza duten P SA sozietatean eta G sozietatean. Eta ordainsariak jasotzen ditu kontseilaria den aldetik C SA, eta P SA entitateetan.

5) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiko datu-basearen arabera, Madrilen du helbidea eta Etxe-lanetako Erregimen Bereziko bi kotizazio-konturen titularra (enplegatzalea) da: Batean, ez da agertzen enpresaren helbidea, eta jarduera-helbidean Bizkaia agertzen da, eta ez du langilerik han alta emanda. Bestean, enpresaren eta jardueraren egoitzatzat Madril agertzen da, eta 2007/01/01 eta 2012/02/01 arteko aldian lau langile agertzen dira alta emanda bertan.

6) EINen erroldan, bizilekua Bizkaian duela agertzen da. ZAEAk funtzionarioak helbide horretara bertaratu zirenean, 2011/05/05, 2011/05/19 eta 2011/05/25ean, ez zuten inor aurkitu etxebizitan. 2011/05/25ean ZAEAk agenteek egindako zuzemenean, adierazten da hainbat auzokidek, galdekatuta, jakinarazi zutela han bizi zela baina ez zela egoten, “Bizkaian eta Madrilen bizi delako”. Etxeko atezaínak adierazi zuen han bizi dela baina lan-jardueragatik hara-hona ibiltzen dela eta zaila dela berarekin topo egitea.

7) Zerga-egoitza 2012/02/01tik aurrera Madrilera aldatzen zuela jakinarazi eta gero, ZAEAk berriro kontsulta egin zion EINeko erroldari 2012/05/09an, eta helbidea Madrilen zuela egiaztatu zuen.

8) Haren emazte MI andreak, NElko erroldaren arabera, 2009/04/14ean aldatu zuen helbidea Bizkaitik Madrilera.

9) 2012/02/22an ZAEAk agente bat bertaratu zen Madrilgo helbidera, eta eginbideak bete eta hau adierazi zuen bertan: “Zergapekoarekin lehen zuzemena egikaritu da, zeina ez baitu sinatu, eta adierazi du 1980tik orain

artekoan bere ohiko bizilekua Madrilen izan duela, baina De la Rica jaunak, gero, esandako hori zuzentzea erabaki du, lehen Bilbon egindako etxegabetze-epaiketa batean esandakoarekin –hark dioenez– ez datorrelako bat, han adierazi baitzuen hiri hartan alokairuan zuen etxebizitza zela bere ohiko bizilekua, jabeak zioenaz bestera, hark esaten baitzuen han ez zela bizi. Arrestian azaldu dena zergapekoak bere kabuz adierazi du, hartaz galdeitu ere egin gabe, eta argudiatu du Industria Institutu Nazionaleko presidentea zela, institutu horrek egoitza Madrilen zuela eta, logikoki, berak ere bizilekua hiri horretan zuela. Halaber, adierazi du mehatxu terroristengatik, duela urte asko ohiko bizilekua Madrilen zuela, Euskal Autonomia Erkidegora maiz samar joaten bazen ere”.

Zerga-agentea zergapekorekin egiten hasi zen eta hark sinatu ez zuen zuzemenean honako hau adierazten zen: “J jaunak, zergapeko gisa, jakinarazi du bisitatu den helbide hori dela bere familia-bizileku ohikoa 2011/11/14tik aurrera eta bertan bizi dela halaber bere emazte MI andrea. Gehitu du 2009tik 2011/11/14ra bitartean alokairuan bizi izan zela Madrilen, eta jakinarazi du 1980tik 2009ra bitartean bere ohiko bizilekua bisitatu den etxebizitza hau zela baina zaharberritze-lanak zirela-eta ezin izan zela bertan egon 2009tik 2011/11/14ra bitartean”.

10) ZAEaren datu-basean, bizitza bakarreko etxebizitza eraikitzen proiektuaren bisa bat ageri da, Madrilgo Arkitektoen Kolegioak 2009/02/13an onetsia; obraren kokalekua Conde de Orgaz Parkean dago.

3. ZAEAk bere azalpen-idazkian eta alegazioen idazkian jakinarazten du zein arrazoibiderengatik uste duen zergapekoaren zerga-helbidea eragabe zegoela finkatuta Bizkaian, eta ebatzen du Madrilen egon behar zuela 2007/01/01etik hark bere zerga-helbidea formalki Madrilera aldatzen duen arte ere (2012/02/01), eta eskatzen dio Arbitraje Batzorde honi erabaki dezala gatazka bere eskabidea aintzakotzat hartuz.

4. 2017ko otsailaren 6an egindako bilkuran, Arbitraje Batzordeak erabaki zuen auzi honen izapidetzea onartzea eta BFARI jakinaraztea hori.

5. 2017ko martxoaren 6ko data duen eta hurrengo 7n erregistroan sartu zen idatziaren bitarbez, BFAk alegazioak aurkeztu zituen.

Horietan, gatazka zehaztu duten aldi osoan zergapekoak zerga-egoitza Bizkaian izan duela dio.

Idazki horretatik, eta harekin batera datorren eta inolako dokumentaziorik atxiki gabe datorren Tributu Ikuskaritzaren txostenetik, ZAEAk eskainitako arrazoibideei erantzuten dieten honako aurrekari hauek nabarmenzen dira.

1) BFAK dioenez, J jauna, ZAEAk zehazten dituen kontu horien titular izateaz gain, agertzen da “titular eta baimendun” legez (ez da zehazten tasun horietako zeinetan) Bizkaiko Kutxabaneko kontu batean ere.

2) Bazkide sortzailea ez ezik, Administrazio Batzordeko presidentea da, eta ordainsariak jasotzen ditu zerga-egoitza Bizkaian duen M SA sozietatetik. Entitate horretatik jasotzen dituen ordainsarien zenbatekoa beste iturri batzuetatik jasotzen dituen errentak baino handiagoa da. Ordainsari horien ondoren hurrengoa, zenbatekoz, Gizarte Segurantzatik jasotako pentsioak dira.

3) BFAK jakinarazten du 2012ko martxoaren 21ean Bizkaiko bizilekura joan ziren BFAko agenteek egin zuten (baina atxikitzen ez den) zuzemenean adierazten dela etxaldeko atezaínak onartu zuela J jaunak garai horretan etxea erabiltzen zuela, nahiz eta une zehatz hartan ez zegoen bertan, autoz Madrilera joana zelako, egunean bertan itzultzeko asmoarekin. Halaber esan zien Madrilera usu joan ohi zela. Atezaínak pertsonatze-errekerimendua hartu egin zien eta De la Rica jaunak egun hartan bertan erantzun zuen telefonoz.

4) Bizkaiko bizilekuaren jabeak etxegabetze-audi bat egikaritu zuen J jaunaren aurka, eta honek etxegabetzearen aurkako epaia erdietsi zuen eta etxearen jarraitu ahal izan zuen. BFAK jakinarazten du Bizkaiko Probintzia Auzitegiaren

5. Sekzioaren XXXX/XX epaiak honakoa ebatzen duela: “(...) Bizkaian egiten duela demandatuak bere bizitza pertsonala, familiakoa eta harreman profesionaletakoa (...)”. Ez da espedientera ekarri epai horren lekukotasunik.

BFAk eskatzen zion Arbitraje Batzordeari ebatz zezala J jaunaren zerga-egoitza Bizkaian zegoela ezbaian den denboraldi horretan.

6. Espedientea amaituta, ZAEArri, BFAri eta interesdunari jakinarazi zitzaien. ZAEAk alegazioak aurkeztu zituen, 2016ko maiatzaren 18ko idatzi baten bitartez, eta hura hurrengo egunean sartu zen Arbitraje Batzordean. BFAk 2016ko apirilaren 22ko idatziaren bidez aurkeztu zituen bereak, eta hura egun horretan bertan sartu zen erregistroan. Zergapekoak ez zuen alegaziorik aurkeztu.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1. Gatazka hau Euskal Autonomia Erkidegoko Kontzertu Ekonomikoko arauak aplikatuz ebatzi behar da; maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onartu zen hori, eta pertsona fisikoek zerga-egoitza zehazten da bertan. Arauak honako hauek dira:

«43. artikulua. Ohiko bizilekua eta zerga-egoitza.

Bat. Ekonomia-itun honetan xedatutakoari begira, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi izaten diren pertsona fisikoek ohiko bizilekua Euskal Autonomia Erkidegoan dutela pentsatzeko, ondoren aipatzen diren arauak aplikatuko dira, hurrenez hurren:

Lehenengoa. Lurralde horretan zergaldiko egun gehien ematen dutenean, pertsona fisikoek errentaren gaineko zergari dagokionez; sortzapen egunaren bezperan amaitzen den urtebeteko egun gehien ematen dutenean, urtearen edozein egunetatik hasita zenbatuta, oinordetza eta dohaintzen gaineko zergari, ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergari eta zenbait garraiobideren gaineko zerga bereziari dagokienez.

Pertsona fisikoek ohiko bizilekua, gainerako zergei dagokienez, dena delako zergaren sortzapen-egunean pertsona fisikoek errentaren gaineko zergaren ondoreetarako duten ohiko egoitza bera izango da.

Lurralde jakin batean pertsona batek zenbat denbora eman duen zehazteko,

aldi batez kanpoan izandako denbora hartuko da kontuan. Kontrako frogarik ez dagoen aranean, pertsona fisiko bat Euskal Autonomia Erkidegoko lurrualdean dagoela pentsatuko da ohiko etxebizitza bertan baldin badu.

Bigarrena. Lurralte horretan baldin badu bere eginkizunen zentro nagusia; leku hori zein den jakiteko, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ezarpen-oinarriaren zatirik handiena zein lurraldetan eskuratzen duen ikusiko da; kasu honetarako, ez dira kontuan hartuko higigarrien kapitalak emandako errentak eta ondare-gehikuntzak, ez eta zerga-gardentasunaren araubidean –profesionala alde batera utzita– egotxitako oinarriak ere.

Hirugarrena. Lurralte horretan baldin badu aitortutako bere azken bizilekua, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ondorioetarako.”

...

Laugarrena. Ekonomia Itun honen ondorioetarako, jarraian aipatuko direnek zerga-egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan dutela uste izango da:

- a) Ohiko bizilekua Euskal Autonomia Erkidegoan duten pertsona fisikoak.”
2. Gatazka hau ebatteko, hortaz, transkribatutako Ekonomia Itunaren 43.Bat artikuluarekin bat etorri, zergapekoaren ohiko egoitza 2007ko urtarrilaren 1etik 2012ko otsailaren 1 arte non zegoen zehaztu behar da, gatazka sustatu duenak –ZAEAk– aldi horretara mugatzen baitu haren xedea.
3. Lehenik eta behin, erabaki behar da J jaunaren ohiko egoitza Ekonomia Itunaren 43.Bat artikuluaren horretarako ezarritako lehen araua aplikatz ezarri ote daitekeen; hau da, gatazkan dauden bi administrazioetako zeinen lurrualdean eman duen 2007tik 2011 arteko ekitaldietako egun gehien ikusita.
4. Pertsona bat toki jakin batean egotea askotan zuzenean frogatu ezin den ekintza materiala da, gatazka honetan gertatu bezala. Orduan, aztarnen edo susmoen bidezko frogak bilatu behar dira, eta horien balorazio-estandarra Procedura Zibilaren Legearen 386.1 artikuluak ezartzen du.

5. Gatazka honetan elkartzen dira zenbait aztarna zergapekoak bai Madrilekin eta bai Bizkaia-rekin loturak dituela erakusten dutenak.

Madrilen eta Bizkaian etxebizitza bana zuen erabiltzeko moduan J jaunak. Madrilgoa bere jabetesuneko zuen, eta Bizkaikoa errentari gisa erabiltzen zuen. Madrilgoan etxe-langileen erregimenen hainbat soldatapeko zituela ageri da. Ez da halakorik Bizkaikoan. Haren emazteak Madrilen zuen zerga-egoitza 2009tik aurrera. Bera Bizkaian zegoen erroldatuta gatazka honen garaian, eta han aurkezten zituen zerga-aitorpenak, eta ez Madrilen. J jaunaren jarduera profesionalak, gatazka-garaian, Madrilen, Bizkaian eta Gipuzkoan kokatzen dira. Bai Madrilen eta bai Bizkaian bazituen banku-entitateekiko harremanak.

Aztarna horien guztiengatik haztapenak eramatzen gaitu bereziki esanguratsutzat iriztera zergapekoak lau langile ere izan dituela alta emanda etxe-langileen erregimenean Madrilen, eta bat ere ez Bizkaian; hala nola bere emazteak Madrilen zuela zerga-egoitza, eta expedienteetan ez dela agertzen inolako ziorik ezkontideek elkarrekiko bizikidetza etena zutela uste izateko.

Zergapekoak Bizkaian alokairuan zuen etxebizitzaren jabearekin izan zuen auzibidea, hark etxetik kanporatu nahi izan zuelako, eta BFAk dioenez haren “bizitza pertsonala, familiakoa eta harreman profesionalak” Getxon zetzala zioen auzitegiaren epaiarekin burutu omen zenak garrantzi berezia izan zezakeen gatazka erabakitzerakoan. Halaz eta guztiz ere, ez da expedientera ekarri haren lekukotasunik, eta, bestalde, aipatzen den epaiaren erabiltzen den terminologiaren zehaztugabetasunak ez du zilegitzen hura zorrozkia lotzea Itun Ekonomikoan zerga-egoitza arautzen duten irizpideekin, bi Administrazioetako zeinen lurrealdean egiten den urteko egun gehien baita honek darabilen ikuspuntuarekin.

Baina, gainera, gatazka honetan bada inguruabar bat garrantzi berezia duena eta Arbitraje Batzordean aurkeztu direnen artean aurrekaririk ez duena: zergapekoaren aitorpena, hain zuzen; ZAEAKO agentea egindako zuzemenean jaso zena hark Madrilen dagoen bizilekura egin zuen bisitaldiaren ondotik. 2002ko otsailaren 22ko data duen zuzemen horretan, funtzionarioak

jaso zuen De la Rica jaunak egindako adierazpena honako hitz hauekin: “jakinarazi du 2011/11/14tik aurrera, bisitatu den helbide hori (Madrilgoa) dela bere familia-bizileku ohikoa, eta bertan bizi dela halaber bere emazte MI andrea. Gehitu du 2009tik 2011/11/14ra bitartean Madrilen bizi izan zela, eta jakinarazi du 1980tik 2009ra bitartean bere ohiko bizilekua bisitatu den etxebizitza hau zela baina zaharberritze-lanak zirela-eta ezin izan zela bertan egon 2009tik 2011/11/14ra bitartean”.

J jaunak zuzemen hori sinatu ez izanak ez du gutxiesten haren garrantzia, behar bezala identifikatutako autoritate-agenteak izenpetuta datorrenez.

6. Zerrendatu ziren aztarnen haztapenak eta zergapekoak berak dokumentatzu hornituta egiten duen aitorpenak ondorioztarazten digu J jaunaren ohiko bizilekua eta bide batez zerga-egoitza 2007ko urtarrilaren 1etik 2012ko otsailaren 1era Itun Ekonomikoaren 43.Bat artikuluaren lehen arauak esaten duenaren arabera, Madrilen zeudela.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

ERABAKI DU

1.- Ebaztea J jaunaren zerga-egoitza 2007ko urtarrilaren 1etik 2012ko otsailaren 1 arte Madrilen zegoela.

2.- Jarduerak amaitu eta artxibatzea.

3.- Ebazpen hau Zerga Administrazioko Estatuko Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta J jaunari jakinaraztea.